

txintxarri



Axier Arteaga erronkaz erronka, aurrera

Binakako Promozio Txapelketa irabazi ostean, buruz burukoa lehiatzeari ekin dio pilotari lasarteoriatarrak. / 6-9

TXINTXARRI

Landareen V. azoka

Lore eta landareen V. azoka egingo da bihar, Lasarte-Oriako Okendo Plazan /3

Martxan da Lasarte-Oriako XXXI. Literatur lehiaketa eta XXX. Haur eta Gazteen lehiaketa / 2

Aste Santuko elizkizunak izan dira herrian. Iragan ostiralean gurutze bidea izan zen / 4



ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)



**Whirlpool BSNF9452X
hozkailua
erosteagatik,
Whirlpool NWD19WH
mikrouhin labea
OPARI!**

Eskaintza!

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Josue Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL
josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa



Aurtengo lehiaketaren sariak azaroaren 25ean banatuko ditu epaimahaia. TXINTXARRI

Literatur lehiaketa martxan da

Udalak jakitera eman ditu Lasarte-Oriako XXXI. Literatur Lehiaketako zein XXX. Haur eta Gazteen lehiaketetako parte-hartze oinarriak. Lanak bidaltzeko epea maiatzaren 26an bukatuko da. Sariak, berriz, azaroaren 25ean banatuko dira, larunbatarekin.

Txintxarri

Urtero legez, Lasarte-Oriako Udalak literatura lehiaketetan parte hartzeko oinarri eta baldintzen berri eman du. Euskaraz zein gaztelaraz idatzitako poesiak, ipuinak eta mikroipuinak sarituko ditu epaimahaia. Idazlanek originalak izan beharko dute. Parte-hartzaileek maiatzaren 26rako aurkeztu beharko dituzte, beranduenez. Sari-banaketa azaroaren 25ean egingo da, larunbatarekin, Manuel Lekuona kultur etxean.

Interesa dutenek www.lasarteoriasarean.eu web orrialdean eskuratu ahaliko dute informazio guztia.

Haur eta gazteak

Adinaren arabera hiru kategoriatan bereizi dituzte antolatzaileek: 2008. urtean edo beranduago jaio direnek 'A' delakoa osatuko dute; 2005 eta 2007 artean jaio ziren neska-mutilak 'B'-n egongo dira, eta 2002tik 2004ra bitartean

jaiotakoak 'C'-n. A eta B kategorietako gaztetxoek ipuin sailean aurkeztuko dituzte lanak; C kategoriakoek aukera bat baino gehiago edukiko dute: ipuinak edo poemak. Esan bezala, euskaraz edo gaztelaraz idatzi ditzakete.

Ipuinek hiru orrikoak izan beharko dute gutxienez. Poemek, berriz, 60 bertso-lerrokoak. Ipuinen kategorian hiru sari emango ditu epaimahaia: 1goak 150 euro irabaziko ditu, 2.ak 112 eta 3.ak 76.

Helduak

Lanak euskaraz zein gaztelaraz aurkeztu ahaliko dituzte parte hartzaileek; gaia librea izango da haien artean. Dena den, baldintza pare bat gehiago ere bete beharko dituzte: argitaratu gabeak eta originalak izan beharko dute idazlanek, eta beste lehiaketaren batera aurkeztu gabeak.

Poesia eta mikrokontakizunak dira helduen lehiaketako bi

modalitateak. Poesien metrika eta luzera librea izango da; mikrokontakizunak, gehien jota, 1.500 karakterekoak.

Sariak espezialitateka banatu dituzte antolatzaileek. Poesiak idazten dituztenek honako sariak irabazi ahaliko dituzte: euskaraz idatziak izan badira, 650 euro eta diploma; kopuru bera patrikarako du gaztelarazko 1go saria irabazten duenak.

Mikrokontakizunen espezialitatekoek, euskaraz zein gaztelaniaz, 325 euro eta diploma irabaziko dituzte.

Haurrenean ez bezala, helduen kategorian 'Lasarte-Oria' sariak ere egongo dira: herrian erroldatutako idazleek irabazi ahaliko dituzte horiek.

Bi espezialitateko bakoitzean emango dute sari hori antolatzaileek, euskaraz zein gaztelaniaz. Diru kopurua arestian aipatutakoen berbera izango da: 650 poesien kasuan, eta 325 mikrokontakizunenean.

Lasarte-Oriako 119 familiak 7.397 kilo janari jaso dituzte

2017ko lehen janari banaketa egin dute herriko Udalak eta Gurutze Gorriak elkarlanean

Maddi Noriega

Kalteberatasun egoeran dauden Lasarte-Oriako 323 pertsonak osatutako 119 familiak 7.397 kilo janari jaso dituzte, herriko Udalak eta Gurutze Gorriak elkarlanean egindako urteko lehen janari banaketan. Pertsona behartsuei laguntzeko Europako Funtsarekin kudeatu dituzte elikagaiak.

Bi adin tarteko pertsonak jaso dituzte elikagaiak; batetik, bi urte baino gutxiago dituzten haurrentzako zerealak, esne-hautsa eta haurrentzako potioak eman dizkiete familiei. Adin horretatik gorakoentzat, berriz, oliba-olioa, babarrunak, arroz zuria, atun kontserbak, berdura krema, fruta kontserbak, galletak, garbantzuak, leka kontserbak, esne osoa eta kontserbako tomate frijitua.

Adibide gisa, 4 kideko familia batek 12 pakete arroz, 8 pakete

garbantzu, 8 pakete babarrun, 40 litro esne, 12 pakete pasta, 16 pakete gaileta, 12 lata tomate frijitu, kontserbako 4 leka lata, 8 litro oliba-olio, kontserbako 32 atun lata, 12 lata fruta eta 4 lata berdura krema.

Onuradun izateko irizpideak

Aurtengo lehen banaketako 119 familiak alde aurretik gizarte-langileek baloratu zituzten, banaketarako erabilitako bi irizpideak berresteko; lehenik, Udaleko tasen eta prezio publikoen salbuespen eta hobarien zerrendan sartuta egotea; eta bigarrenik, aldeko txosten sozial bat izatea.

Hurrengo janari banaketan onuradun izan nahi duten familiek eskaera egin dezakete Lasarte-Oriako Udaleko erregistro orokorrean, eskaera orri orokorra betez.

San Pedrotako omendua hautatzeko aukera

Udalak parte-hartze prozesua zabaldu du, herritarrek aukera izan dezaten beren ustez Lasarte-Oriaren alde lan egin duen pertsona edo kolektiboa proposatzeko. Pertsona bakoitzak proposamen bat egin ahaliko du, eta arrazoitu egin beharko du zergatik uste duen proposamen hori aintzat hartu beharrekoa dela.

Festen Sailak proposamena egitera gonbidatzen ditu herritarrek. Horretarako, etxez etxe, postontzietan txartel bat banatu da herritarrek beren proposamenak Udalari helarazi ahal izateko.

Iritzia emateko apirilaren 28a izango da azken eguna, udaletxeko bulegoetan dauden postontzietan utzi beharko da orria beteta. Parte har daiteke udalaren webgunean <http://albisteak.lasarte-oria.eus/euskara/galdeketak>.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko deia herritarrei

Errenta aitorpena egiteak etekinak ekartzen dizkio gizarteari, baina euskaraz egiteak, balio erantsi bat du; gure hizkuntza eta horren erabiltzaileak indartzen dira.

Buruntzaldeako udaletako Euskara Zerbitzuek, urteak daramatzate errenta aitorpena euskaraz egin dezaten herritarrek animatzen. Horrela, urtez urte,

poliki-poliki badoa ere, errenta aitorpena euskaraz egiten duten herritarren kopurua goraka doa, eskualdean.

Martxa horri eutsi asmoz eta geroz eta herritar gehiago animatzeko helburuarekin, Buruntzaldeako Facebook orrialdean, lehiaketa bat jarriko dute abian, eta mezua partekatzen dutenen artean, saria zozketatuko dute.

Hortaz gain, errenta euskaraz nola egin ere jakinaraziko zaie herritarrei.

Lore eta landareen V. azoka bihar Okendon

Lasarte-Oriako Lore eta Landareen V. azoka izango da bihar, Okendo plazan. Udaberriarekin batera, loratu dira landareak eta horien erakusleihu izango da herriko plaza goizetik eguerdira bitarte.

Maddi Noriega

Udaberriko zelai loredun eta koloretsuen antzera esnatuko da bihar, Okendo plaza; lore eta landareen V. azokak hartuko baitu Lasarte-Oriako enparantza.

Goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak aipatu azokak eta eguerdiko 14:30ak bitarte izango da lore eta landareak ikusi, usaindu eta erosteko aukera ederra.

Ekimen horren berri eman zuten atzo eguerdian, Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosek, Dioni Avila merkataritzako teknikoak, Nuria Fernandez Sozioekonomia batzordeko zinegotziak, eta Ainhoa Amundarain Behemendi Landa Garapenerako Elkarteko ordezkariak.

Alkateak azaldu moduan, aurtengoan 14 erakusmahai izango dira dira azokan.

Horietan guztietan, mota askotariko lore eta landareak izango direla gaineratu nahi izan zuen Behemendi Elkarteko ordezkari Ainhoa Amundarainek; "kanpo zein barruko lore eta landareak, haziak, sukaldaritzarako eta kosmetikarako belarrak, eta beste hainbat lore eta landareak atonduko dute Okendo plaza.



lazko emanaldietara jende andana gerturatu zen. TXINTXARRI

Haurrentzako tailerrak

Etxeko haur eta gazteenek ere izango dute azokaz gozatzeko aukera bat baino gehiago. Antolatzaileek jakitera eman duten moduan, haurrentzako tailerrak izango dira azokan, horrela. landareez eta loreez zertxobait gehiago ikasi ahal izango dute gerturatzen direnek.

Tailer horien egitarauari dagokionean, goizeko 11:00etatik 12:00etara izango da lehena.

Horretan, lore prentsatuakin eskulanak egiteko tarte ederra izango da.

Bigarren tailerra berriz, lehena amaitutakoan hasiko da, 12:00etan eta honek ere ordubeteko iraupena izango du.

Honetan, landaketaz ikasi ahal izango dute gaztetxoek.

eta horrekin batera, Zur jolasak ere izango dira txikienentzat.

Tailer hauekin batera, azokak iraun bitartean jolasak ere izango direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Agerraldiaren amaieran herritarrak animatu nahi izan zituzten biharko azokara hurbildu eta gozatzera.

NEURE KABUZ



ANE LABAKA

Erradikalak

Barkatuko didazue erredundantzia, baina aldaketa erradikal bat sumatu dut eta berau azaltzera nator. Erradikalak izateagatik kritikatuak izatetik erradikalak izateagatik goraiatuak izatera igaro gara denbora gutxian.

Apirilaren lehena izan zen mugarrria. Herriko kultur etxea gainezka, espektatibak altu, urduritasuna, barre algarak, negarrak, emozioen katarsia, leherketa... Entzuleak zutik eta eternoa egin zitzaidan txaloaldia. Begiak malkoz erreta eta eskertzeko hitz egokiak topatzeko ezintasuna.

Ez dut berehalakoan ahaztuko. Biharamunean gaixotzerainoko ajea, mugikorra sutan eta kalean ere ezagun nahiz ezezagunen zorion mezu etengabeak. Zuen burua euskalgintzako pedigridunen artean kokatzen ez duzenak, gidaliburuetako ama zintzoak, bertsozaleak ez zarenak, deseroso sentitutako gizon ezkertiarak, feminista aurrez konbentzitu ahaldunduak... Ez zait erraza egiten duela ia urtebete hasi genuen bide honek zuotako bakoitzarengan zenbat eragin izan duen erradiografiatzea. Pozgarria bezain harrigarria da, hala ere, emanaldi berak pertsona ezberdinengan zein azarna, sentipen, kezka, ondorio... izan ditzakeen ohartzea.

Errailetatik aritu nahi genuen, erroetara jo eta iraultzeko. Orain, errailetatik erantzun diguzue. Eskerrik asko.

Errioxara irteera antolatu du Biyak Bat egoitzak 28rako

Askotariko ekintzak antolatu ohi dituzte herriko Biyak Bat helduen egoitzako kideek, eta oraingo honetan, irteera izango dute apirilaren 28an.

Errioxako hiriburua ezagutzera joango dira oraingo honetan; Logroñora.

Aipatu egunean, hilaren 28an, goizeko 08:15ean irteera dira herititik eta Logroñoko 'Santa Maria de la Redonda' eliza nagusia bisitatuko dute lehenik, eta museoa gero.

Goizeko bisiten ostean, Hostal Venecian egingo dute eguerdiko otordua, eta hirian barrena paseoa egin asmo dute arratsaldean.

Prezioei dagokionean, 35 euro ordaindu beharko dute egoitzako kide direnek eta 45 euro, berriz, kide ez direnek.

Izen emate epea zabalik da jada eta plaza mugatuak direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Irteerak arrakasta handia izan duela adierazi dute Biyak Batetik eta dagoeneko bigarren autobusa betetzeko lanetan ari dira. Hau dela eta, herritarrak animatzen dituzte parte hartzera.

ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

Kruzeroa taldean

Lasartetik irteera + Noaoaren laguntzarekin

Baltikoko hiriburuetatik

NOAOA BIDAIAK

Azken hamarrotea!

943 373 613 • info@noaoa.eus • www.noaoa.eus

Hipodromo Etorbidea 10, 20160 Lasarte-Oria

Aste Santuko elizkizunak herrian

Hainbatek Aste Santua herritik kanpo igaro bitartean, fededunek Aste Santuko ospakizunetan hartu zuten parte lehengo astean, ostegunetik igandera bitarte. Mezak eta ostiraleko Gurutze Bideak izan ziren ekintza nagusiak.

Txintxarri

Herritar askok oporrak hartu eta bidaiatzeko baliatu zituzten Aste Santuko egunak; beste batzuek, ordea, Lasarte-Oriako parrokiek antolatutako ospakizunetan hartu zuten parte, Erramu Igandetik hasi eta Pazko Igandera arte. Astebeteko epean, hainbat ekintza egin zituzten.

Ostiral goizeko Gurutze Bideak izan ziren jendetsuenak. San Pedro elizakoak izan ziren goiztiarrenak: goizeko zortzietan, egurrezko gurutzea eskuetan, parrokiatik abiatu eta Sasoetako aldapan gora abiatu ziren, Buenos Aires aldapa baino lehenagoko tunela zeharkatu eta Sausta baserri pareko aldarera iritsi arte. Bidean hainbat geldialdi egin zituzten, Jesussek egin zuen ibilbidea gogoratzeko.

Handik ordu pare batera, Arantzazuko Ama elizako kideak Azkorte ermitarainoko bidea egin zuten, iaz ez bezala; eguraldi txarra tarteko, parrokiaren bertan geratu ziren lehengo urtean. Bi Gurutze Bide horiek Juan Luis Murua herriko parrokoak gidatu zituen.

Meza ugari

Ostiral Santuan bertan, baina arratsaldean, Jesusen pasioa ospatu zuten herritarrek Arantzazuko Ama eta Brigitarren komentuko meza elebidunetan.

Bezperan, Ostegun Santuan alegia, Jesusen afaria gogoratu zuten fededunek. San Pedro eta Arantzazuko Ama parrokiaren zein Brigitarren komentuan meza elebidunak entzun zituzten. Elizetakoak Juan Luis Murua eman zituen, eta Felix Garitanok komentukoak.

Larunbatean pazko gaubeilaren txanda izan zen. Hainbat herritar iluntzeko zortzietan eta bederatzietan gerturatu ziren Brigitarren komentura eta San Pedro parrokiara, hurrenez hurren.



San Pedro elizatik abiatutako ostiraleko Gurutze Bidea. TXINTXARRI



Brigitarren komentua lepo bete zen Pazko Igande goizean. TXINTXARRI

Pazko Igandean ere erantzun zieten fededunek herriko elizek egindako deialdiei. Euskarazko meza eskaini zuen Juan Luis Murua parrokoak San Pedron, 10:00etan, 13:00ean, berriz, gaztelarazkoa. Arantzazuko Ama eta Brigitarren komentukoak euskaraz eta gaztelaniaz eman zituzten aldi berean Juan Luis Murua eta Felix Garitanok, hurrenez hurren. 11:00etan hasi ziren biak.

Aurtengo Aste Santuko ospakizunak, dena dela, astebate lehengo hasi ziren, Erramu Igandeko mezeekin hain zuzen ere. Gainontzeko egunetan egin bezala, euskara eta gaztelaniazko meza bana entzun zituzten herritarrek San Pedro elizan, eta bi hizkuntzetan batera Arantzazuko Ama Parrokian. Brigitarren komentukoak ere bi hizkuntzatan emandakoa izan zen.

Ohiko udalbatzar saioa egin zen apirilaren 7an

Hiru puntu eta galdera eta erreguen tartea jorratu zituen udal korporazioak apirilaren 7ko saioan

Maddi Noriega

2017ko apirilaren 7an ospatutako batzarreko aktaren onarpena izan zen Udalbatzarreko lehen puntua, eta alderdi guztien aldeko botoarekin, aho batez onartua izan zen.

Korporazioko kideak herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazioari atxikitzeko erabakiz jardun ziren jarraian, eta hau ere aho batez onartu zuten.

Udalbatzarreko hirugarren puntuan, Gardentasunaren inguruan PP alderdiak aurkeztutako 55 mozioak bozkatu

zituzten, eta PP alderdiaren boto bakarrarekin, aurkako 7rekin (PSE-EE), eta 6 abstentzioarekin (3 EH Bildu, 2 ADLOP eta 1 EAJ-PNV) baztertuta geratu zen. Honen ostean, PSE-EE alderdiak emendakin bat aurkeztu zuen. Bertan, Lourdes Acevedo alderdiko bozeramaile eta zinegotziak irakurri zuen emendakina, eta jarraian, bozkaketa egin zen; aldeko 9 bozkekin (7 PSE-EE eta 2 ADLOP), aurkako boto batekin (PP) eta 4 abstentziorekin (3 EH Bildu eta 1 EAJ-PNV), onartua geratu zen.

Diru-laguntzen 2017-2019ko Plan Estrategikoa onartu da

Udalbatzarrek 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Epe horretan udalak pertsonei, familiei edo entitate pribatuei emateko aurreikusita dauzkan diru-laguntzak jasotzen ditu plan horrek.

Planak bi zati ditu: lehenengoa, xedapenezkoa, planaren funtzionamendua arautzen duenada; eta bigarrena, berriz, diru-laguntzen lerroak eta hiru urteetarako

aurreikusitako kontu-sailak jasotzen ditu.

Urtero udaleko aurrekontuek plana betetzeko beharrezkoak diren kontu-sailak jaso beharko dituztela ezartzen du, eta erreminta baliagarria da, beraz, aurrekontuak planifikatzeko.

Plan hori kontrolatzearen ardura udaleko kontu-hartzailearena izango da, eta, planaren iraunaldia amaitutakoan, sail guztietako arduradunek Alkatetzari memoria bat aurkeztu beharko diote.



TXINTXARRI

Udaberri egunerako marrazkiak

Aterpe Merkatarien Elkarrekin antolatuta, Udaberri festa egingo da maiatzaren 12an, eta 6-12 urte bitarteko haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu dute. Kartulinak Kattagorri, Urruzola mertzerian eta Noelia Osteopatian hartu ahal izango dira. Marrazkiak hil honen 28a baino lehen entregatu beharko dira komertzio horietan.

ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politiketara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



Amaia,
oñatiarra.
Ingeniaria.

A Gipuzkoa osoa lotzen duten
Lurraldebuseko 111 linea.

B 3.478 langile kontziliazioaren inguruko
esperientzia pilotuetan parte hartuz.

C Gipuzkoako biribilgunea: autobia
edo autobide bat herri bakoitzetik
15 km baino gutxiagora.

D 90 km baserri bideren berritze lanak
75 herritan.

E 419 enpresa berri:
147 emakumeek sortuak.

F %67ra bitarteko deskontua
autobietan Abiaturi esker.



Hasieratik nagusitu ziren Arteaga eta Erasun Binakako Promozio Finalean. TXINTXARRI

"Pixkanaka aurrerapausuak ematen jarraitzea da erronka"

AXIER ARTEAGA PILOTARIA

Binakako txapela irabazi eta berehala erronka berriak azaldu zaizkio Axier Arteagari (Lasarte-Oria, 1996). Buruz buruko Promozio Txapelketan murgilduta dago orain, eta udaran ere norgehiagoka ugari jokatzeko espero du aurrelariak

Martin Vicioso

Hilabete gutxitan urrats handiak eman ditu Axier Arteaga pilotari lasarteoriatarak. Binakako Promozio Txapela eskuratu zuen apirilaren 1ean ehun herritar baino gehiagoren aurrean. Beotibar pilotalekuan urrezko ukitua eman zion egindako txapelketa bikainari, debuta egin zuen frontoi berberean. Sentsazio gazigozoak bizi zituen orduan. Finaleko larunbata, aldiz, bere "bizitzako egun politenetakoa" bezala deskribatzen du.

Txapelketako pilotari onenaren saria ere eman zioten, eta badirudi promozio maila, pixkanaka, txikia geratzen ari zaiola. Arteaga, hala ere, humil agertu da eta badaki gogoz egin beharko duela lan hemendik

"BATZUENTZAT FAVORITO IZAN ARREN, BAGENEKIEN ONDO HASI BEHAR GENUELA FINALA"

aurrera pilotaren eszenatoki zorrotzean urratsak ematen jarraitu nahi badu.

Buruz buruko Promozio Txapelketan "burubelarri" dago orain aurrelaria. Pasa den larunbatean Ikaztegieta Dario Gomez 22-17 garaitu ostean, Aitor Iruña Munitibartarra izango du aurrean gaur Bergarako Fraizkozuri pilotalekuan.

Orain arteko ibilbideari eta, batez ere, Jon Erasunekin Binakako Promozio Txapelketan eskuratutako txapelari buruz

hitz egin dugu Asegarceko pilotariarekin.

Momentu onean iritsi zinen Binakako Promozio Txapelketara. Hala ikusten zenuen zure burua?

Bai. 2016a partidu onak eginez eta joko ona erakutsiz bukatu nuen, eta egia esan gogo handiz eutsi nion txapelketari. Aurreko udaran hasi nintzen hobeto jokatzeko, baina tartean ere arazo fisiko batzuk izan nituen udazkenean, eskuetatik ez bainintzen fin ibili.

Faboritoen artean kokatu zintuzten. Presioa nabaritu zenuen?

Egia esan, ez nuen nire burua presionatu egi ikusi. Irabazteko nahia eta grina bagenuen, baina beste bikote indartsu batzuk bazeuden, eta lan handia egin behar genuela oso konziente ginen Erasun eta biok. Hasiera batean, finalerdietara iristeko erronka jarri genion gure buruari, eta hortik aurrera ikusiko genuela.

Fase erregularrean emandako maila ikusita, finalerdietako ligaxkan aurrera egiteko aukerak genituela garbi ikusi genuen.

Konfiantzaz jokatzeko ikusi zaitugu.

Hala da. Partidu onak egiteak eta joko puntu egokia edukitzeak segurtasuna ematen dizu. Laso eta Iturriagaren kontra jokatuak lehenengo norgehiagoka hartan, agian, urduri xamar atera ginen kantxara. Baina hortik aurrera oso txapelketa borobila egin dugula uste dut.

Hala ere, partidu horri buelta emateko zorian egon zineten.

Urduri xamar ekin genion partiduari, eta aurkariek hori baliatu eta markagailuan aurrera egin zuten. Txapelketa hasiera zen, eta askotan ez da erraza izaten eritmoari neurria hartzen. 19 eta 21eko egitera iritsi ginen, baina ez zen posible izan lehenengo puntu hori eskuratzea.

Atzelari bezala Jon Erasun zizurkildarra izan duzu. Zer azpimarratuko zenuke hark egindako lanari buruz?

Batez ere, eman didan segurtasuna nabarmenduko nuke. Kasik ez du pilotarik galtzen eta hori bertute

"ERASUNEK EZ DU APENAS PILOTARIK GALTZEN, ETA HORI AURRELARIAK ASKO ESKERTZEN DU"

handia da. Uste dut partiduro tanto batek edo bik alde egiten diotela batz bestea. Beste atzerlariaren gainetik ibili da alderdi horretan, eta pilotarik galtzen ez duen zageroak asko errazten du aurrelariaren lana. Txapela irabazi izanaren gakoetako bat izan da, dudarik gabe.

Egia da, beste atzelari batzuk gehiago nagusitzen direla piloteoan, baina oro har, txapelketa bikaina egin du Jonek. **Txapelketa honetan Lasarte-Orian zure lehenengo partidua irabazteko aukera ere izan duzu –Peña II eta Salaverriren aurkakoa, finalerdietan–. Arantzatxoa kenduko zenuen.**

Egia esan, bai. Irabaztea lortu genuen, eta are garrantzitsuagoa dena, joko maila ona eman. 22 eta 10 nagusitu ginen gerora finalean topatu genuen bikotearen kontra. Gainetik karga bat kendu nuen garaipen horrekin. Izan ere, aurretik Michelinen jokatuak bi partiduetan ez nuen nire mailarik onena emateko aukerarik izan, eta profesional mailako debuta egin nuen egunean ere galdu egin nuen. Familia, lagun eta herritarren aurrean partidu on bat egiteko gogoia nuen.

Finalerdietatik aurrera, bestalde, oso tanto gutxi jaso zenituzten.

Lehenengo fasean egindako lan onak indarra eman zigun finalerdietako ligaxkara begira. Joko maila ona ematen ari ginela bagenekien, eta hiru partidu horietara konfiantzarekin joan ginen. Lasok eta Iturriagak osatutakoa izan zen tanto gehien egin zizkigun bikotea –13–, eta finalera begira jendearen aurrean horrek kokatu gintuen faborito. **Peña IIaren eta Salaverriren aurkako finalean aurretik jarri zineten goiz, eta ez zirudien partiduak alde egingo zizuenik.**

Konziente ginen, eta gure artean komentatu genuen Erasunek eta biok, ondo hastera erabakigarria izan zitekeela. Batzuentzat faborito izan arren, partidu bakarrean edozein gauza gerta daiteke, eta gu ez ginen fidatzen. Galtzen hasiz gero, bagenekien finala asko zaildu zitekeela. 8-0eko aldeko partzialarekin hasi ginen, eta horri esker, besteak beste, lasaia aurre egin genion finalari.

Hortik aurrera, tanteoa paretsu joan zen, beti ere gu aurretik joanda. Azkenean, txapela atera genuen, eta hori zen helburu nagusia.



Herritar ugari babesa izan zuten Tolosako Beotibarren. TXINTXARRI

Herritar ugari hurbildu zen finala ikustera. Polita izan zen haien aurrean irabaztea?

Oso hunkigarria. Agian, asko esajeratzea da, baina nire bizitzako egun politenetakoa izan zen apirilaren batekoa. Ez zen, ordea, larunbat hura bakarrik izan. Aurreko aste osoa izan zen oso berezia niretzat. Ingurukoek sarrera pila bat eskatu zituzten, eta nire arreba hortaz arduratu bazen ere, niri ere informazioa ailegatzen zitzaidan. Finalerako gogoak zeuden eta horrek ere nire animoak are eta gehiago bizitu zituen.

Beotibarren lehenengo minututik nabaritu nuen zaleen babesa, eta oso eskertuta nago eman zidaten berotasunarekin. Dena perfektu atera zen eta ospakizunean ere ederki pasa genuen. Egia esan, amestutako eguna izan zen. Orain, lanean jarraituko dut halako gehiago bizi ahal izateko.

Zeini eskaini diozu txapela?

Lehenik eta behin, babestu nauten guztiei eta, nola ez, finalera etorri ziren herritar eta lagun guztiei. Bestalde, nire lehengusu Mikel Garayalderekin gogoratu nintzen. Gaixotasun batekin borrokan dabil, eta hari indarra bidali nahi izan nion.

Nola ez, nire aita Juan Mariri ere. Berak kutsatu zidan kirol honi diodan maitasuna eta urte

hauetan familian jasotako babesarik gabe ez nintzatekeen honaino iritsiko.

Binakako Final Nagusiaren atarian Albisurekin, Ezkurdia eta Merino Ilaren aurka irabazi zenuen. Partidu serioa jokatu zenuten.

Niretzako froga antzekoa bezala zela sentitzen nuen. Izan ere, maila goreneko pilotariekin eta kontra jokatzeko nuen lehenengo partidua izan da. Aukera ezinhobea zen niretzat, enpresakoentzat eta pilotazaleentzat nire burua haiekin lehiatzeko ikusi ahal izateko.

Hasieran nahiko urduri hasi nintzen, ohiko partiduetan baino estuago, agian. Hala ere, Jon Ander Albisu atzelariak asko lagundu zidan, eta pixkanaka askatzen joan nintzen. Azkenean, partida geureganatzea lortu genuen, nahiko maila txukuna emanez gainera.

Bilboko Bizkaia pilotalekuan publiko zabalaren aurrean jokatu zenuen. Partidu garrantzitsua zen zuretzat?

Oso garrantzitsua. Diozun moduan, Bizkaia pilotalekua betezear zegoen, eta ikusle askorentzako tokia dago bertan. Gainera, etxetik ere zale askok jarraitu zuen norgehiagoka zen, ondoren final handi bat jokatzear baitzegoen. Hainbeste jenderen aurrean maila ona ematea urrats garrantzitsua izan da niretzat. Bi pilotari handiren kontra norgehiagoka ona egin genuen

oro har, akats handirik egin gabe. Dena den, aipatu beharra dago Joseba Ezkurdiak eta David Merinok ez zutela bere partidurik onena egiterik izan, eta horrek ere eragina izan zuen.

Txapela lortu zenuenetik ez da hilabete pasa eta beste erronka batean murgilduta zaude. Buruz buruko Promozio Txapelketa hasi da eta Darioaren kontrako lehenengo partidua irabazi duzu, 22-17. Larri, baino lortu duzu hurrengo fasera sailkatzea.

Bai. 7-0 aurreratu zen Dario, sakea baliatuz min handia eginez. Askok estutu ninduen eta hamaseina jarri ginen arte bera aurretik izan zen. Hortik aurrera, nik gehiago asmatu nuen eta bietako edozeinek bereganatu zezakeen partidua irabaztea lortu nuen. Pozik nago egindako partiduekin. Aurkari gogorra neukan aurrean. Dario ni baino gehiago ibili izan da buruz buru, eta hari irabazi ahal izateak konfiantza handia eman dit. Modalitate honetan gutxi aritutakoa naiz, eta Binakako Txapelketan barneratuta egoteagatik, denbora gutxi izan dut behar bezala prestatu ahal izateko. Dena den, hurrengo fasera sailkatzea lortu dut, eta helburua partiduz partidua nire jokoa hobetzen joatea da.

Irustaren aurka jokatu duzu gaur Bergaran. Erasunen kontra lan

txukuna egitetik dator bizkaitarra. Ze sentsazioarekin zoaz?

Argi daukat oso partidua borobila egin beharko dudala Irusta gainditu behar badut. Jon Erasun buruz buruko jokalaria ona izan da beti, eta hura 22-21 gainditu zuen. Konfiantzarekin ikusi nuen bera, baina ni ere gustura nago egindako lanarekin eta erakusten ari naizen jokoarekin. Ikusi beharko da zer gertatzen den.

Beste aurkari batzuek ere lan ona egin zuten lehenengo fasean. Gorkak, Urretabizkaiak, Taintak edo Elordik, esaterako. Nor ikusten duzu faborito?

Zaila izaten da jakitea zein izango den txukunen ibiltzen dena. Hala ere, nik Gorka eta Tainta indartsu ikusten ditut. Txapelketa jokatzeko dugun pilotarien artean profesional mailan esperientzia

"FINALAREN EGUNA NIRE BIZITZAKO BEREZIENEN ARTEAN DAGO; ASKO HUNKITU NINTZEN

"LEHEN MAILAKO PILOTARIEKIN ETA KONTRA JOKATU NUEN BILBON, ETA GARRANTZITSUA ZEN"

handiena duten bi pilotariak beraiek dira, eta aurreko urtetako lehiaketetan jadanik postu onak egindakoak dira –finalera iritsi zen Gorka 2016an eta Iker Taintak finalerdietan galdu zuen–.

Dena den, zozketak hala erabaki duelako, elkarren artean jokatu beharko dute asteburu honetan eta, hortaz, bietako bat kalera joango da final laurdenetan. Norgehiagoka hori irabazten duena, dudarik gabe, konfiantzaz gainetza egongo da hurrengo partiduei begira. Beraz, oso kontuan hartu beharreko bi pilotari dira.

Balizko final batean topatuko zenituzke soilik bai Gorka baita Tainta ere.

Ni txapelketaren beste adarretik noa, bai. Irusta gaindituz gero, Elordi eta Peña Ilaren arteko garailearen kontra neurtu beharko ditut indarrak. Hala ere, ez diet datozen faseei gehiegi erreparatzen. Halako txapelketei partiduz partidua aurre egin behar zaie, egun txarra izanez gero kanpora joateko arriskua baitaukazu.

Entrenamendu gutxi egin ahal izan ditut, baina eskuetatik ondo ikusten dut neure burua eta finalerdietara sailkatzea da nire helburu nagusia momentu honetan, eta hori lortu ahal izateko barruan daukadana emango dut. Hortik aurrera? lanean segi.



Buruz burukoan murgilduta dago orain aurrelari lasarteoriatarra. TXINTXARRI

Esan duzu ez duzula nahi adina denborarik izan txapelketa prestatu ahal izateko. Beste pilotari batzuek baino esperientzia txikiagoa duzu buruz buruko modalitate honetan? Gutxi jokaturakoa naiz, bai. Afizionatu mailan eman nituen urteetan binaka eta lau t'erdian jokatu nuen gehienbat. Lehengo urtean Buruz buruko Promozioko Txapelketa jokatzeko aukera izan nuen, baina finalerdietara ailegatzekoa ere, baina ez dut uste nire mailarik onena eman nuenik.

Manomanista ona izateko gaia dudala esan didate, baina sustantzia hori ez badut lantzen jai dut. Nire onena ematen saiatuko naiz partidu hauetan, pixkanaka hobetuz. Sariak eta txapelak ez dira ezerezetik ateratzen, baina batzuetan egindako lanaren fruitua gutxien espero duzunean etortzen zaizu. Fisikoki ondo nago, eta maila ona eman dezakedala argi daukat. Ez dakit irabazteko nahikoa izango den, baina ahalegina egingo dut, behintzat.

Esan bezala, 2016ko edizioan finalerdietara iritsi zinen, Lasarte-Orian Gorkaren kontra galdu aurretik.

Aurten hobeto ikusten duzu zure burua?

Aurten, lehengo urteko txapelketarekin alderatuta aurrerapausu bat eman dudala uste dut. Helburua pixkanaka hobetzen joatea da, eta badakit oraindik ere lan handia dudala aurretik, baina bide onean noala uste dut. Zentzu horretan, buruz buru pilotari hobea naizela uste dut. Horrek ez du esan nahi aurten emaitza hobea lortuko dudarik edo finalera iristea gutxieneko helburua denik. Aurkariak ere jokatzeko dute, eta aurtengoak oso gogorak dira. Gogor saiatu beharko naiz zerbait polita lortu nahi badut.

Aldi berean, fisikoki oso exigentea den modalitatea da buruz burukoa, eta gustatuko litzaidake eskuko minarekin ez ateratzea. Ondoren, udara dator eta seguru aski partidu dezente jokatzeko aukera izango dut. **Izan ere, aurtengo udaran lanpetua egongo zarela espero da.**

Hala ematen du, bai. Nahi ala ez, Binakako Promozioko Txapelduna izateak ematen du nolabaiteko sona, eta horrekin

batera, enpresak eta zaletuek gehiago ikusi nahi zaituzte kantxan. Lehen mailako pilotariarekin partiduren bat jokatzeko ere egokituko zait eta, zentzu horretan, erronka polita

"BURUZ BURUKOAN ENTRENAMENDU GUTXI EGINDA NAGO, BAINA GOGOZ HARTU DUT TXAPELKETA"

"GORKA ETA TAINTA IKUSTEN DITUT INDARTSU; ESPERIENTZIA DUTE ETA NABARI DA"

"UDARARA BEGIRA ORAINGO JOKO MAILA ETA EGOERA FISIKOA MANTENDU NAHIKO NITUZKE"


izango da aurtengo udaran edukiko dudana.

Ilusioz hartuko dut, aukera paregabea baita, baina badakit exigentzia maila altua dela eta halako partiduak jokatzeko jarraitu nahi badut, bertan jokatzeko gai naizela erakutsi behar dudala. Hala ere, apirilean gaude eta buruz burukoa lehiatzen nago; iritsiko da udarako jaialdiekin kezkatzeko unea.

Ze erronka jarri dizkiozu datozen hilabetetara begira?

Esan bezala, momentuz burubelarri nago Buruz Buruko Txapelketan. Ikusi beharko da zer egiten dudan eta zer datorren ondoren. Hala ere, orain arteko mailari eustea eta hobetzen joatea helburu konstantea dela esango nuke. Udara etorriko da eta, harekin batera, partidu pila. Gustatuko litzaidake hilabete hauetan eduki dudan jokoa mantentzea eta fisikoki eta eskuetatik osasuntsu egotea.

Hori bermatuta, lanean jarraitzea da aurretik ikusten dudan erronka nagusia. Orain arte bezala, urratsak ematen joan, pixkanaka pilotari hobea izateko.





Txapelketako Jokalari onenaren saria eskuratu zuen Arteagak. TXINTXARRI

Profesional mailako ibilbidea

Debuta

2016-01-04: Beotibar, Tolosa. **Arteaga II/Ibai Zabala 6 - Victor/Imaz 22**

2016ko Binakako Promozio Txapelketa (Finalerdietan kaleratua)

2016-02-13: Labrit, Iruñea. **Arteaga II/Imaz 22 - Tainta/Galarza 15**

2016-02-19: Urantz, Irun. **Arteaga II/Imaz 22 - Mendizabal III/Erostarbe 15**

2016-02-27: Ogeta, Gasteiz. **Arteaga II/Imaz 22 - Elordi/Irusta 10**

2016-03-06: Burunda, Altsasu. **Arteaga II/Imaz 22 - Gorka/Tolosa 12**

2016-03-11: Michelin, Lasarte-Oria. **Arteaga II/Apraiz 15 - Agirre/Larunbe 22**

2016-03-18: Beotibar, Tolosa. **Arteaga II/Imaz 11 - Gorka/Tolosa 22**

2016ko Buruz buruko Promozio Txapelketa (Finalerdietan kaleratua)

2016-04-18: Madalensoro, Oiartzun. **Arteaga II 22 - Imaz 5**

2016-04-22: Fraizkozuri, Bergara. **Arteaga II 22 - Merino 18**

2016-05-07: Michelin, Lasarte-Oria. **Arteaga II 11 - Gorka 22**

2016ko 4 t'erdiko Promozio Txapelketa (Hasierako ligaxkan kaleratua)

2016-10-15: Iruñea, Labrit. **Arteaga II 5 - Tainta 22**

2016-10-23: Beotibar, Tolosa. **Arteaga II 11 - Ugalde 22**

2016-05-07: Atano III, Donostia. **Arteaga II 22 - Elordi 15**

2017ko Binakako Promozio Txapelketa (Txapelduna)

2017-01-13: Hendaia. **Arteaga II/Erasun 19 - Laso/Iturriaga 22**

2017-01-21: Labrit, Iruñea. **Arteaga II/Erasun 22 - Bakaikoa/Ibai Zabala 15**

2017-01-30: Beotibar, Tolosa. **Arteaga II/Erasun 22 - Errandonea/Martija 6**

2017-02-04: Igarondo, Idiazabal. **Arteaga II/Erasun 22 - Ugalde/Martinez 13**

2017-02-10: Urduliz. **Arteaga II/Erasun 11 - Elordi/Erostarbe 22**

2017-02-18: Intxaur, Zizurkil. **Arteaga II/Erasun 22 - Peña/Apraiz 5**

2017-02-26: Astelena, Eibar. **Arteaga II/Erasun 22 - Dario/Cecilio 15**

2017-03-06: Beotibar, Tolosa. **Arteaga II/Erasun 22 - Errandonea/Martija 12**

2017-03-10: Michelin, Lasarte-Oria. **Arteaga II/Erasun 22 - Peña/Salaverri 10**

2017-03-17: Zubikoa, Oñati. **Arteaga II/Erasun 22 - Laso/Iturriaga 13**

2017-04-01: Beotibar, Tolosa. **Arteaga II/Erasun 22 - Peña/Salaverri 12**

2017ko Binakako Txapelketako Finalaren atariko

2017-04-09: Bizkaia, Bilbo. **Arteaga II/Albisu 22- Ezkurdia/Merino 15**

'Kirola denontzat!' ekimena igandean

Ostadar SKTren Kirol Egokitu sailak 'Kirola denontzat!' izeneko ekimena antolatu du igande honetarako. Maialen Chourraut Udal Kiroldegian ospatuko da, 9:15ean hasi eta 12:30era arte. Doakoa izango da sarrera.

Txintxarri

Kirol-igande ederra izango da aste honetakoa, besteak beste, Ostadar SKTren Kirol Egokitu sailak 'Kirola denontzat!' ekimena prestatu duelako. 9:15ean hasi eta 12:30era arte, multi-kirol ginkana batean modalitate desberdinez gozatu ahaliko dute herritarrek. Antolatzaileek zehaztu dute parte hartzeko adin-tarte gomendatua 8 eta 12 urte artekoa dela. Edonork ahaliko du parte hartu, urritasunen bat eduki edo ez.

Maialen Chourraut Udal Kiroldegian egingo dute aipatu ekitaldi hori. Ostadar Kirol Egokituko arduradunek azpimarratu dute doakoa izango dela sarrera, eta parte hartzen duten guztien artean zozketa bat egingo dutela, sariak banatuz. Era berean, parte-hartzaileen ahaide eta lagunak ere joan ahaliko dira ekitaldiaz gozatzera, kiroldegiko harmailak irekita egongo baitira goiz osoan zehar.



Kirol Egokitu eguna, Okendon. TXINTXARRI

Igandeko kirol ekitaldiari buruzko edozein zalantza edo galdera edukiz gero, Kirol Egokitu sailaren arduradunek eskatu dute honako helbide elektronikora idazteko: ostadar.inklusioa@gmail.com.

Iazko abendutik martxan

Ostadar SKTren Kirol Egokitu sailak badaramatza hainbat hilabete lanean. Aurkezpen ofiziala iazko abenduan egin zuten, Lasarte-Oriako Michelin fabrikari. Enpresa hori da egitasmo honen babesleetako bat. Kirol Egokitu sailaren arduradunak Amaia Cadarso eta Iurgi Olasagasti dira.

Joan den abendu amaieran egin zuten baita ere 'Kirol egokitu eta inklusio eguna' Okendo plazan. Ostadar SKTk eskaintzen dituen hainbat kirol modalitate (bola eta toka, ipar martxa, saskibaloia eta futbola) probatu ahal izan zituzten herritarrek, urritasunen bat duten kirolarien ikuspuntutik. Horrez gain, ibilgailu egokituetan bueltatxo bat ere eman ahal izan zuten.

Ordur geroztik makina bat entrenamendu, saio eta kirol ekitalditan egon da presente Ostadar Kirol Egokitua. Etziko beste urrats bat izango da.

Asier Pozo bikain Euskadiko selekzioarekin lehian

Buruntzazpi taldean aritzen den Asier Pozo herritarrak brontzea kolkoratu zuen 'Scratch' proban.

Txintxarri

Txirrindulariek gogotik eragin diete pedalei Aste Santuan zehar ere. Junior, kadete eta txirrindularitza egokitukoek, adibidez, Espainiako pista txapelketan aritu ziren lehengo astean, Tafallan.

Lasarte-Oriak ere izan zuen ordezkari txapelketa horretan. Buruntzazpi taldean aritzen den Asier Pozo kadeteak hartu zuen parte, eta ederki aritu zen. Euskadiko selekzioko kideetako bat izan zen, Unai Atutxa, Iñaki Diaz, Ekain Jimenez eta Jaime Romerorekin batera. Persekuzio proban zilarrezko domina kolkoratu zuen taldeak.

Indibidualki ere ederki aritu zen Pozo. 'Scratch' proban hirugarren denbora onena eginda, brontzezko domina kolkoratu zuen. Bestalde, 'Keirin' delakoan zazpigarren izan zen.



Asier Pozo, ezkerrean. RFEC

Iñigo Altuna, urratsez urrats

Apiril hasieran 165 kilometroko ibilbidea duen Balentziaga oroimenezkoa jokatu zuen Jirabira talde afizionatuko txirrindulari Iñigo Altunak. Lehenengo urtea du herritarrak kategoriatan horretan.

Euskal Herriko Itzulikoa eta gero, badator Giroko porra

Ainhoa Tabernan banatuko ditu Ostadar SKTk Euskal Herriko Itzuliko porraren sariak, datorren ostiralean.

Txintxarri

Ostadar SKTk Euskal Herriko Itzuliaren harira antolatutako txirrindularitza porrak harrera ona izan du herritarren artean, ehundaka animatu baitziren.

Sari nagusia 'Gontzal Motor' boletoak irabazi du: sailkapen nagusiko lehen sailkatua izan da, 802 punturekin. 360 euro poltsikoratu ditu. 180 euroko bigarren saria, berriz, 'Iara'-rentzat izan da.

Puntu gehien lortu dituen taberna, berriz, Genesis izan da. Bertan euren txartelak bete zituzten parte-hartzaileen artean 9.678 puntu bildu dituzte. Hori dela eta, tabernak bi pertsonarentzako afari bat irabazi du, Txartel Txoko jatetxean.

Itzuliko porrako sariak ez dira horrekin bukatu, ordea. Zortzi otar ere banatu zituzte antolatzaileek: zazpi zozketatu egin zituzte, eta,

ohitura den bezala, zortzigarrena sailkapeneko azken boletoari eman diote. 'Polyblas', 'Joseba Labaka 5455', 'Earlysimon', 'Jmas', 'Abenida albondigak', 'II' eta 'Joxeangel Iparra' izeneko txartelak zozketa bidez eskuratu zituzte, eta 'Malacha'-k irabazi du zortzigarrena, esan bezala, azken sailkatua izateagatik.

Sari guztiak datorren ostiralean banatuko ditu Ostadar SKTk, Ainhoa tabernan, 19:00etan.

Girokoa, maiatzaren 2an kalean

Maiatza hastearekin batera kaleratuko ditu Ostadarrek Italiako Giroko zerrendak eta txartelak, ohiko tabernetan. Zehazki, maiatzaren 2an banatuko ditu.

Hirugarren eta azken porra Frantziako Tourrekoa izango da. Uztailaren 1ean hasiko da hiru asteko itzuli hori.

Indartsu ekin die Trinko triatloi taldeak apirileko probei

Imanol Arteagak Aizarnazabalgo duatloia jokatu du bihar; 29an Senpereko taldekakoan ariko da Trinko.

Txintxarri

Martxoa bukatu bezala ari da apirilean Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldea: egurrean. Hilabetez aldatu genuenetik hainbat probatan hartu dute parte taldeko kideek.

Azkoitia-Azpeitiako Maratoi Erdia eginez ekin zioten apirilari Enaitz Ibarburuk, Imanol Arteagak, Mikel Olarrak eta Asier Gorostegik. Hurrengo egunean, Ismaelek Donostiako Maratoi Erdia egin zuen, eta Koldo Monasterio kide nafarrak, berriz, Peñiscolako ironman



Trinkoko kideak, Eguesibarren. FOTOTRI

erdia. Hurrengo asteburuko larunbatean, berriz, Eguesibarko taldekako duatloia jokatu zuten hainbat kidek, arratsalde bikaina igaroz. Eta, igandean, Donostia-Baiona-Donostia martxa zikloturistan ere presente egon zen Trinko, eguraldi bikainari etekina ateraz.

Hurrengo erronkak

Bihar berriro ikusi ahaliko dira Trinkoren kolore berde-beltzak. Imanol Arteagak Aizarnazabalgo duatloia jokatu du.

Eta, datorren asteko larunbatean, Senperera joango da herriko triatloi taldea, bertako taldekako triatloia jokatzen.

Taldeko kideek gogorarazten dute edozein unetan dela posible taldera batzea. Harremanetarako, idatzi hona: lasartetriatloi@gmail.com.

Martxan da XXIX. Squash Txapelketa Soziala

Apirilaren 3an hasi zen Squash Txapelketa, eta 21 partehartzaileek lehiatuko dute astelehenetik ostiralera. Maiatzaren 23ra bitartean luzatuko da lehenengo fasea, eta Txapeldunen fasea bi multzoetako hiru onenek jokatuko dute

Txintxarri

Aurtengo Squash Txapelketa Soziala martxan da dagoeneko. 21 jokalarik eman dute izena aurtengo txapelketan. Bi multzotan banatuta, euren artean jokatu beharko dute Txapeldunen fasean postua eskuratzeko bidean. Bi lehenengoez finala jokatuko dute, eta hirugarrenak eta laugarrenak kontsolazio finala. Txapeldunen fasea sailkatzen ez diren jokalariek beste fase bat lehiatuko dute kanporatze zuzeneko formatuan.

Berdinketarik egongo balitz, lortutako puntuek, seten batzuek, bestekoak, tantoen batzuek, bestekoak eta aldeko tantoek izango dute lehentasuna, hurrenez hurren.

Lehenengo multzoan Kinin Calvo, Iker Cañedo, Gorka Arretxe, Oswal Cañedo, Diego Santana, Patxi Delgado, Dei Larrañaga, Angel Rosa, Asier Goikoetxea, Javier Azurza eta Toño Perez lehiatuko dira.



Hiru jardunaldi jokatu dira. TXINTXARRI

Bigarrenean, berriz, Iñaki Garcia, Xabier Azaldegi, Raul Mateos, Ivan Garcia, Xabi Amiano, Dani Davila, Imanol Olaizola, Aitor Tejero, Juanjo Martin eta Roger Hidalgo izango dira sailkapena bilatuko dutenak.

Astelehenetik ostiralera

Lanegun arratsaldetan jokatuko dira aurtengo txapelketako partidu guztiak, astelehenetik ostiralera. Antolatzaileek 18:00etatik 21:00etara programatu dituzte norgehiagokak. Hala ere, lau jokatu behar diren egunetan 22:00ak arte luzatuko dira.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, partiduren bat ezarritako egun eta orduan jokatzetik ez balute, jokalariek beraiek adostu beharko dute hitzordu berria noiz jarri.

Halaber, partiduren ordutegi aldaketa egin ahalko dute partehartzaileek. Beti ere, ezarritako ordua iritsi aurretik egingo balute. Jokalari bakoitzak hiru aldaketa egiteko eskubidea izango du.

5 jokotara

Ohi bezala, 15 tantoko bost jokotara lehiatuko dituzte norgehiagokak. Hiru jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko, eta oraindik ere beste zortzi dauzkate aurretik Txapeldunen fasea iritsi bitartean.



Jubenil mailako Gipuzkoako selekzioa, entrenamendu saioan. OSTADAR ARETO FUTBOLA

Ostadarreko lau jubenil aritu ziren Gipuzkoako selekzioarekin

Entrenamendu saio bat burutu zuten Unai Anguianok, Alex Varelak, Oscar Lanzasek eta Iker Martin Iñigok.

Txintxarri

Ostadarrek jubenil mailako areto-futboleant murgiltzeko apustua egin zuen lehengo urtean. Aurten, talde bakarra ez, bi ari dira lehian, ederki gainera. Egiten ari diren lanaren fruitu gisa, Gipuzkoako selekzioak lau jokalaria deitu zituen, entrenamendu saio bat egiteko: Unai Anguiano, Alex Varela, Oscar Lanzas eta Iker Martin Iñigo. Areto-futbol saileko arduradunek aipatu digutenez, Gipuzkoako entrenatzaileak gustura dira herritarrek erakutsitako mailarekin.

Talde federatuek, atsedena

Asteburu honetan ez dute partidurik jokatuko herriko talde federatuek. Beste zenbait diziplinatan gertatu bezala, areto-futboleko taldeek ere bi aste ekenaldia daukate.

3. Nazional mailako Ostadar Antonio arazoetan da berriro; jaitsiera puntu bakarrera du uneotan. Gipuzkoako 1go mailan, ISU Leihoeak ez du aukerarik playoffetara sailkatzeko, eta Cecilia Ostadarrek mantentzea lortu du. Jubeniletan, ederki ari dira Lasarte Kafe Bar eta Kafe Bar Buenetxea.

Maialen Chourrautek 'Segre Cup Canoe Slalom' irabazi du

Piraguista lasarteoriatarra izan zen garaile Lleidan jokatutako bi jardunaldiko Segre Cup txapelketan.

Txintxarri

Maialen Chourraut piraguistak beste behin erakutsi du sasoi betean dagoela, joan den asteburuan Lleidan jokatutako ur bizietako Segre Cup txapelketan gailenduta. Mundu osotik etorritako 200 bat piraguista larunbat zein igandean aritu ziren, denbora onena nork egingo. Piraguista herritarrek lortu zuen hori.

Larunbatean Ponts ibaian egin zituzten jaitsierak. Bi tandatan irabazi zuen Chourrautek. Irati Goikoetxea izan zen bigarrena,



Maialen Chourraut. BALINT VEKASSY

eta Camille Pringent frantsesa hirugarrena.

Igandean berriz, Maialenek aski ongi ezagutzen duen kanal batean aritu ziren: Seu d'Urgellekoan, hain justu. Berriro ere lehenengo postua eskuratu zuen lasarteoriatarrek, bigarren sailkatu Nuria Vilarrublar sei segundo aterata. Podiuma Pauline Guet frantsesak osatu zuen.

Denbora totalak

Honakoak izan ziren denbora totalak emakumezkoen K1 modalitatean, bi jardunaldiak batuta: Maialen Chourraut izan zen aurrena, 195,63 segundorekin (94,11 larunbatean eta 101,51 igandean); Pauline Guet bigarren sailkatuak, 206,13 (96,98 eta 109,15); eta Marta Martinez hirugarrenak, 205,73 (95,69 eta 110,04).

Ostadar SKT-ren gizonezkoen senior taldeak ez du igoera lortu

Denboraldi ona egin arren, motz geratu da Ostadar SKT-ren gizonezkoen saskibaloit taldea

Txintxarri

Donostiako Seminario P. Eriz kiroldegian jokatu zen senior gizonezkoen 3. mailako Lauko Finala. Eibarko Katu-Kale taldearen aurka neurtu zituzten indarrak Ostadar SKT-ko mutilek, baina ezin izan zuten garaipena eskuratu. 49-53 gailendu ziren debabarrenarrak eta, ondorioz, lasarteoriatarrek igoera lehiatzeko aukerarik gabe geratu ziren.

Serio hasi zuten norgehiagoka urdinbeltzek, eta atsedena dira hiru puntuko aldearekin joan

ziren. Defentsan gogor aritu ziren eibartarrak, saskiratzeak ahalik eta gehien zailduz. 26 jaurkiketa libreetatik erdia soilik izan ziren balekoak.

Jose Luis Alonsok zuzendutako taldeak egindako esfortzua motz geratu da aurten, baina datorren urtean bigarren mailara igotzeko amorruz bueltatuko dira.

Juniorrak, maiatzean

Emakumezkoen junior mailako lehenengo taldeak maiatzaren 6an eta 13an jokatuko du Lauko Finala Gaska kiroldegian.

Balentria lortzeko azken txanpan

Ostadar SKTren Ohorezko Jubenil mailako taldeak lider jarraitzen du, liga bukatzeko hiru jardunaldiren faltan. 66 puntu ditu, eta 63 Dunboa Eguzkik. Lehenengo postua mantenduz gero, promozioa jokatu luke beste multzoko liderraren aurka.

Iñigo Gonzalez

Ostadar SKTren Ohorezko Jubenil mailako taldeak azken txanpari ekingo dio datorren astean. Liga bukatzeko hiru jardunaldi bakarrik falta direla, lehen multzoko liderra da, 66 puntu bilduta. Hirura dago bigarren sailkatu Dunboa Eguzki. Irailean, baloia jiraka hasi zenetik, etengabekoa izan da bi talde horien arteko dema.

Ikusi beharko pelikula nola bukatzen den. Orain arte behintzat, herriko taldea izan da protagonista nagusia, ligaren bi heren daramatzalako sailkapen-buru gisa. 6. jardunaldian jarri ziren lider aurrenekoz, eta geroztik postu horretan atera dira astelehenero egunkarietako sailkapenetan.

Zailena geratzen zaie, ordea: ia urte osoan biltzen joandako altxorra 30. jardunaldira arte mantentzea. Hilaren 29an ariko dira azken hiru partiduetako lehenengoan, Vasconiaren aurka, Puion. Hurrengo, Michelinen; Herrerako Sporting izango dute arerio. Eta, bukatzeko, Martutene taldeari egingo diote bisita. Kalkuluak errazak dira: denak irabazita, Euskal Ligara igotzeko promozioa jokatu dute bigarren multzoko liderraren aurka.

Aste Santuko oporraldiaren aurretik, 5-1 garaitu zuten Mariño Michelinen.

Igoera fase bikaina

Lan bikaina egiten ari da baita ere Emakumezkoen Lurralde mailako taldea. Euskal Ligara igotzeko fasea ari dira jokatzeko, bigarren urtez segidan. Zazpi jardunaldi igaro dira, eta urdin-beltzak hirugarren postuan daude 12 punturekin. Hirura dago Anaitasuna liderra, eta Ordizia bigarren sailkatuak herritarrek beste puntu ditu.

Aste Santuko atsedenaldea hartu aurreko norgehiagoka ez zen izan taldeak jokatu



Ostadarrek 5-1 garaitu zuen Mariño Michelinen. TXINTXARRI



Bikain ari da emakumezkoen taldea igoera fasean. TXINTXARRI

onena, 4-0 galdu baitzuten Mutrikuren aurka, San Miguel zelaian. Emaizta horrek erakusten du zeinen orekatua dagoen multzoa, azken sailkatua izanda ere, Mutrikuk merezita poltsikoratu zituelako puntuak.

Puntuak biltzeko komeria galantak dituen Ohorezko Erregional mailako taldea da. Bost partidu falta dira liga amaitzeko, eta sailkapenaren azken aurreko postuan dira, 26

punturekin. Hamabost puntu daude jokoan, eta zazpita dauka salbazioa Ostadarrek. Zaila, baina ez ezinezkoa. Matematikak kontrakoa esan artean, borrokan jarraitu behar.

Zertxobait samurragoa litzateke egoera, bi aste atsedenaldea hartu aurretik arerio zuzen Aloña Mendiri irabazi izan balio taldeak, baina 1-1 berdindu zuten Michelinen. Puntuak hirunaka biltzen hasi behar dute.



Denboraldi bikaina egiten ari da 16 urtez azpiko Gure Etxea ZRT Beltzak. TXINTXARRI

16 urtez azpiko Gure Etxea ZRT Beltzak, Euskadiko txapeldun

Espainiako Txapelketa izango da gazteen hurrengo erronka; maiatzaren 20 eta 21ean ariko dira Valladoliden

Txintxarri

Urte osoan zehar egindako lan onaren ordaina jaso zuten 16 urte azpiko Gure Etxea ZRT Beltzak taldeko kideek. Fase erregularrean lehenengo postuan bukatu zuten, eta joko onari eutsiz, nagusi izan dira Liga irabazteko kanporaketetan ere.

Finalean Donostiako Bera Bera izan zuten aurkari. Lehia bizia izan dute bi taldeek, Gasteizko Escor Gaztedi RT-rekin batera, eta amaieran jokalaria lasarteoriatar eta zarauztarrez osatutakoak eskuratu du sari nagusia.

Baloiaren jabetza menperatzea lehenetsi zuten Gure Etxea Beltzak-eko jokalariek lehenengo minutuetatik. Zelaian nagusituz, puntuak pilatzen hasi ziren eta atsedenaldira abantaila nabariarekin joan ziren. Norgiagokari buelta ematen saiatu zen bigarren zatian Bera

Bera, baina ederki eutsi zioten markagailuari 'beltzek'.

Maiatzaren 20an eta 21ean Valladolidera joango da taldea, Espainiako Txapelketa jokatzera. Arduradunen esanetan, "onena ematear dago" oraindik taldea.

Seniorra, igande honetan

Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldea igoera playoffetara sailkatu da aurreko ere. Igandean ekingo dio datorren urtean Ohorezko mailan egoteko erronkari, askorentzat igotzeko hautagai nagusi den Alacanteko La Vila taldearen aurka.

Joan eta itzuliko kanporaketa izango da etzi hasiko dena. Lehenengo partidua Zarauzko Asti zelaian jokatu dute bi taldeek, 12:00etan. Etxeko taldean ariko dira David Vega, Xabi Prieto, Xabi eta Ander Rekondo anaiak eta Julen Aristorena lasarteoriatarrek.

Itoitz Rodriguezek 48.33 segundotan egin ditu 400 metroak

LOKE atletismo taldeko kide izandako Itoitz Rodriguezek 48.33ko marka egin zuen 400 metroetako proban, Missourin (AEBak). Atletika gaztea Amerikako Estatu Batuetan ari da ikasten eta konpetitzen, beka bati esker, Northern State University zentroan. Aire libreko sasoiari ekin dio jada kirolari usurbildarrek.

San Pedrotako pilota txapelketan izena emateko epea irekita

Intza KE-k urtero antolatzen duen San Pedro jaietako pilota txapelketarako izen ematea ireki dute. Maiatzaren 9ra arte eman ahal da Michelingo pilotalekuan astearte eta ostegunetan 18:30etatik 20:00etara. Neska-mutil benjaminek, alebinek eta infantilek hartuko dute parte. Hau da, 2003 eta 2008 urteen bitartean jaiotakoek.

ZORION AGURRAK



Lur
Zorionak nexka politta!
Ongi ospatu 13 urte
eder horiek!



Jon
Zorionak zure 10.
urtebetetzean!!
maite zaitugu
txuflainer!!



Iraia eta Ander
Zorionak sorgiña eta tirillas! Muxu potoloa etxeko
guztien partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUTUNA

Alkatearen soldatari buruz

JESUS ZABALLOS DE LLANOS

Ez naiz inoiz kexatu Lasarte-Oriako alkate izateagatik dudan soldatarekin Bilduk esaten duen bezala. Politikan diruagatik egongo banintz, Parlamentari lanetan jarraituko nuke, eta kargu hori utzi egin nuen 2015ean. Bi lanak uztargarriak dira, horretarako ez dago legearen aldetik arazorik, eta hala ari dira Parlamentuko kide batzuk, adibidez Gasteizko udalean EHBilduko bozeramailea dena (parlamentari soldata mantentzen du) edo bide batez, gogora ekarri daiteke Bilduko Maribi Ugartebururen kasua. Lau urtez ez zuen ekimenik aurkeztu baina 4.946,69 euro jaso zituen hilero eta Bilduk ez zuen hori kritikatu. Harrigarria iruditzen zait esatea "ahal izan bagenu gehiago

jaitsiko genuke" euren legegintzaldian soldaten inguruan hitz egiten dutenean, izan ere, ez zuten egin ez zutelako nahi izan. Gainera gobernua osatu zuten 5 kideen artean, 5ek zuten liberazio osoa edota partziala euren lana egiteko udalean. Aldiz, PSE-Een 7 kide gara eta horietatik soilik 3 gaude liberatua, ahaztu gabe, oposizioak liberazio oso 1 ere baduela eta 2 partzial. "Poltroneros" hitza erabiltzea harrigarria egiten zait. Euren bozeramailea udalean, Pablo Barrio, hasi zen liberazio erdia kobratzen eta 2016an liberazio osora pasa zen. Honek ez zuen ordea ezetzik esan bere igoerari. Eskualdeko alkateen soldatak alderatzen baditugu, soldata baxuena jasotzen duen alkatea naiz ni. Ez dut Bildu entzun Hernaniko alkatearen edota Andoain edo Usurbilgoen soldata kritikatzan. Aipatutako bi herri

gurea baino txikiagoa izanda ere. Nire soldata netoa 2.174,11 eurokoa da eta ez Bildu esaten ari dena. Pablo Barrio Bilduko bozeramailearen martxoko nomina da 2.028,05 eurokoa izan da (dagokion erretentzioa egingo balitz, nik egiten dudan bezala, 1.878 euro jasoko lituzke). Nik uste, momentu honetan bakoitzak egiten duen lanaren alderaketa egingo bagenu, bakoitzak duen ardura maila eta bakoitzak jasotzen duen soldatarena, Pablo Barrio jauna irabazten ateratzen dela esango nuke zalantzarik gabe, 296 euroko diferentzia besterik ez dago eta. Honekin guztiarekin, ez dut esan nahi Pablo Barrio "poltronero" bat denik edota "politikoa profesioz", hori bere Bilduko kideek erabaki dezatela.

SUDOKUA

2	8				6			
6	4	1	3		5			7
					7			
9		3						
			6		3			2
	7					1		3
7			1	2			5	
				3		9		
3				6		7		4

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAK: 943 288 888
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Odol ateratzea

Apirilaren 24an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Zubietako Txokoak

Zubietako Guraso Elkartek uztaila eta abuztuan haur txokoak antolatuko ditu Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko hurrei zuzenduak. Egitaraua eta egutegia oraindik zehaztu gabe badago ere, hasiera batean txokoak goizetan izango dira. Parte hartzeko, maiatzaren 12a arte aurretiko izen emate epea zabalik dago. Interesatuek zubietatxoko@gmail.com helbidera idatzi dezakete edo 649 659 786 telefonora dei dezakete izen emateko informazioa eskatuz. Paperean egin nahi duenak, inskripzio orriak Zubietako eskolan eskuragarri ditu.

Gure esku dago

Botopaperak etxeetara bidaliko dira. Maiatzaren 7ko herri galdeketan botoa eman ahal izateko aukeztu beharreko dokumentazioa: NANA, EHNA eta errolda agiria, gidabaimena eta errolda agiria, pasaporte eta jatorrizko estatuak jaulkitako nortasun agiria (atzeritarren kasuan), edo bizileku txartela (Europar Batasuneko kide ez diren estatuetak hiritarrek). Errolda agiria aurrez udaletxean eskatu beharko da. Botolekuak: Andatza plaza 4 (Muebles Azpeitia), Geltoki kalea 25 (Ostadar), Erribera kalea 10 (Lasartearra elkarte), Nagusia kalea 10 (Arrieskalleta elkarte), Larrekoetxe bidea 13 (Zabaleta auzo elkarte) eta Zirkuito 13 (DendaBerri). Maiatzaren 7an bozkatu ezingo dutenek apaiz etxean aurretiazko botoa eman ahal izango dute apirilaren 29tik aurrera eta botolekura hurbiltzeko eragozpenik izanez gero, 634 523 507 zenbakia jarri da herritarren eskura.

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA
101. SALDU
Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko deitu 663 515 265
Larraga herrian etxea saltzen da. 3 logela, sala, 2 komun, sukaldea eta terraza. Informazio gehiagorako 654 727 789

102. ERRENTAN EMAN
Garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalena. Informazio gehiagorako. 686 674 552
2. LAN ESKAINTZAK
201. ESKAINTZAK
Emakume bat zaintzeko interno moduan lan egingo duen pertsona bilatzen ari gara. 688 645 791
202. ESKAERA
Orduka edo barneko langile bezala aritu nahiko lukeen mutila naiz. Pertsona nagusiak zaintzan edo beharrezkoa den edozein lanetan. 603 720 826.

Emakumea lan bila, nagusien zaintzan asteburutan lan egiteko prest. 675 830 206
Etxeko lanak egin eta pertsona adinduak edo haurrak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Interna, externa edo orduka. 676 188 411

4. IRAKASKUNTZA
esperientzia dut. 660 787 502

402. EMAN
Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila eta adin guztiei zuzenduta 693 601 222
Eskola laguntza eskaintzen da, lehen hezkuntzako umeentzat partikularrak. Magisteritza ikasita eta partikularretan


JAIOTAKOAK

Narao Fernandino Otegi. Apirilaren 10ean.
Eider Montejo Hueso. Apirilaren 9an.

HILDAKOAK

Aitor Billalabeitia Molina. Apirilaren 13an, 35 urte.
Juan Marín Solano. Apirilaren 11n, 87 urte.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 21	ORUE	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 22	LASA	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 23	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 24	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 25	GANDARIAS	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 26	ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 27	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Echeveste Elozegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzaileak
Titakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa
Maider Azurmendi,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martín Vicioso.

Publizitatea
Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Seguroa,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Gallardi.

Informatikoa
Xabier Amadoz.

Administraria
Arkaitz Urdapilleta.

PUBLIZITATEA
Titakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@titakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Titakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 21

URNIETA Zirko tailerra
Zirko tailerra eskainiko du "Tiritirantes" taldeak. Saio irekia izango da, doan.
San Joan plaza, 16:30etatik.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Jaia
Gure Esku Dago dinamikak maiatzaren 7ko herri kontsultarako kanpaina abiatuko du jai giroan. Eguna iritsi bitartean hainbat ekimen gauzatuko dituztela aurreratu dute.
Okendo plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Azoka
5.urtez lore eta landare azoka antolatu du Udalak. Haurrentzako tailerrak izango dira doan eta mota guztietako zuhaizkak, landare aromatikoak, kaktusak, bonsaiak, kosmetikako eta medikuntza naturaleko artisau produktuak, sendabelarrak eta artisautza izango dira salgai postu ezberdinetan.
Okendo plaza, 10:00etatik.

LASARTE-ORIA Txapelketa
Gure Esku Dago dinamikak maiatzaren 7ko herri kontsultarako herria girotu nahi du. Horretarako mus txapelketa antolatu da. Apirilaren 22an jokatuko dira lehen sailkapenak eta finala maiatzaren 7an izango da. Irabazleek Noaoa bidaia agentziren eskutik Errioxan egonaldia eskuratuko dute eta hurrengo sailkatuentzat sari gehiago izango dira. Gure-Etxea tabernan eman behar da izena.
Herriko elkartetean, 16:30ean.

USURBIL Ikastaroa
"Ilargia eta egutegi biodinamikoa" ikastaroa eskainiko da Xabier Akizuren eskutik. Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak antolatutako ekintza da Sagarrondotik sagardora ikastaro saioen baitan. Izena emateko 943 361 114 zenbakian, alkartasuna@usurbil.com edota



LASARTE-ORIA Jaia.
Herriko Gure Esku Dago dinamikako kideek jai giroa prestatu dute larunbaterako. Galdeketa maiatzaren 7an egingo da eta egun hori iritsi arte hainbat ekintza egingo dituzte herria girotzeko
Larunbata 22, Okendo plaza, 11:00etatik

alkartasuna.eus-en.
Potxoenea, 9:00etatik.

IGANDEA 23

URNIETA Haur ikuskizuna
"Peru eta Otsoa" ikuskizuna izango da Didau antzerki faktoriaren eskutik. Serguéi Prokófiev musikari ukrainiarrek 1936ean idatzi zuen ipuin musikatua da, musika sinfonikoa haurrei modu dibertigarri batean hurbiltzeko asmoz egindakoa. Sarrera 3 euro.
Sarobe, 17:30etan.

ASTELEHENA 24

ANDOAIN Literatur Solasaldia
Joseba Sarrionandiaren "Narrazioak" lana aztertuko da. Honetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da udal liburutegitik pasata, 943 300 615 zenbakira deituta edota liburutegia@andoain.eus helbidera mezua bidalita.
Bastero, 19:00etan.

ASTIGARRAGA Literatur Solasaldia
Jorge Carrerok zuzenduta, hilabete honetan Elvira Navarro idazlearen "Los últimos días de

Adelaida García Morales" liburua ingurukoa izango da.
Liburutegia, 19:30ean.

ASTEARTEA 25

ZUBIETA Hitzaldia
"Hezkuntza eta generoa" hitzaldia eskainiko du Amelia Barquin adituak guraso elkarteak antolatuta. Hainbat hitzaldi izango dira datozen asteetan Zubietako herri eskolan.
Zubieta herri eskola, 17:00etan.

ASTEAZKENA 26

ASTIGARRAGA Ikuskizuna
Ipuin musikatua; "Emakume eskeletoak: amodiozko ipuinak" lanaz gozatzeko aukera izango da. Liburuaren Nazioarteko eguna ospatzeko asmoz, helduentzako ipuin saio berezia antolatu da Maite Arreseren eskutik izango da hau eta Mau Ziemkiewicz biolin jotzailea izango du lagun.
Liburutegia, 19:30ean.

URNIETA Diaporama
Aitor Bedialaunetak hitzaldia eskainiko du. Irudi bidez ere, Saharako ume gorren egoera ezagutzeko aukera izango da.
Lekaio, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKIJONA

La la Land
Ostirala: 22:00.

La vida de Calabacín
Igandea: 17:00.

La la Land
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Los Pitufos: la aldea escondida
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

Moonlight
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:00.

ASTIGARRAGA

KULTUR ETXEA

Printze Txikia
Larunbata: 17:00.

USURBIL

URBIL

El Bar
Ostirala: 22:00.
Larunbata: 22:00.
Igandea: 22:00.

El bebé jefazo
Ostirala: 15:45, 17:00, 17:55, 19:10.
Larunbata: 15:45, 17:00, 17:55, 19:10.
Igandea: 15:45, 17:00, 17:55, 19:10.

Es por tu bien
Ostirala: 16:00, 00:55.
Larunbata: 16:00, 00:55.
Igandea: 16:00.

Fast & Furious 8
Ostirala: 16:20, 18:00, 19:05, 20:45, 21:50, 23:30, 00:40.
Larunbata: 16:20, 18:00, 19:05, 20:45, 21:50, 23:30, 00:40.
Igandea: 16:20,

18:00, 19:05, 20:45, 21:50.

Ghost in the shell
Ostirala: 21:20, 23:40.
Larunbata: 21:20, 23:40.
Igandea: 21:20.

John Wick. Pacto de sangre
Ostirala: 17:00, 19:30, 20:05, 22:35, 00:50.
Larunbata: 17:00, 19:30, 20:05, 22:35, 00:50.
Igandea: 17:00, 19:30, 20:05, 22:35.

Kong la isla calavera
Ostirala: 00:25.
Larunbata: 00:25.

La Bella y la bestia
Ostirala: 16:20, 19:00, 21:45.
Larunbata: 16:20, 19:00, 21:45.

Igandea: 16:20, 19:00, 21:45.

Life
Ostirala: 20:15, 22:25, 00:35.
Larunbata: 20:15, 22:25, 00:35.
Igandea: 20:15, 22:25.

Los Pitufos
Ostirala: 16:00, 18:10.
Larunbata: 16:00, 18:10.
Igandea: 16:00, 18:10.

Power Rangers
Ostirala: 23:45.
Larunbata: 00:00.

Un golpe con estilo
Ostirala: 15:45, 17:45, 19:45, 21:45.
Larunbata: 15:45, 17:45, 19:45, 21:45.
Igandea: 15:45, 17:45, 19:45, 21:45.



LABURPENA

La La Land
Zuz.: Damien Chazelle. **Herr.:** AEB (2016). **Gidoia:** Damien Chazelle. **Aktoreak:** Emma Stone, Ryan Gosling, John Legend, Rosemarie DeWitt, J.K. Simmons. **Iraupena:** 127 minutu.

Izarren hiria

Miak (Emma Stone) kafetegi batean egiten du lan, zinema munduko izarretatik gertu. Casting guztietan aurkezten du bere burua, aktore entzutetsu izatea du amets protagonistak.

Sebastian (Ryan Gosling) pianista trebe bat da, eta jazz doinuekin maiteminduta dago. Bere kasuan klub bat irekitzearekin egiten du amets, han eta hemen lanean ibiltzen den bitartean. Ametsak amets, Miak eta Sebastianek elkar topatuko dute, eta maitasuna sortuko da bien artean.

Bikoteak orduan ikusiko du artea eta maitasuna uztartzea ez dela lan erraza. Euren amets profesionalak bete eta maitasun harremana mantentzea izango dute erronka.

Filmak arrakasta handia izan du nazioartean, kritika onak jaso ditu adituen aldetik eta iaz besteak beste, 6 Oscar sari eskuratu zituen, 7 Urrezko Globo eta 5 BAFTA sari.

Okendo zinema taldearen zineforum saioan, jatorrizko hizkuntzan ikusteko aukera izango da gaur.

UDAKO TXOKOAK 2017

Izen-ematea zabalik apirilaren 24tik*, maiatzaren 4ra bitarte

Lehentasuna izango dute **Ttakuneko** bazkideen seme-alabek, **Lasarte-Orian** erroldatuak eta **Ttakuneko programetan dabiltzan haurrek**. Epea bukatuta lekurik badago, 2014an jaiotako haurrak eta Lasarte-Orian erroldatuta ez dauden haurrek izen eman ahalko dute.

*Astelehen goizetan eta ostiral arratsaldetan bulegoa itxita.



Txokoak
10:00-13:00



Goitzoko
zerbitzua
09:00-10:00



Jangela
zerbitzua
15:15ak arte



Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria



EUSKARAZ
BIZITZEKO
HURRENGO
URRATSA

ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ

APIRILAREN 6TIK
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU
EUSKARAREN
AUKERA

Informazio gehiago:

<http://euskara.buruntzaldea.eus>

f Albistea elkarbanatu eta opariak eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani /
Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
UDAL EUSKARA BATZORDEAK

